

LAUDIO UDALA
KULTURA ETA KIROLAK AZPIARLOA

2024. urtean kultura programak egiteko lehiaketa askeko diru-laguntzen deialdia

Laudio Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren 2024ko urriaren 4an erabakiaren laburpena. Erabaki horren bidez, 2024. urtean kultura programak egiteko lehiaketa askeko diru-laguntzen deialdia onartu da.

DLDBN (identifikatzailea):

Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen, Diru-laguntzen Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin bat, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>): eta Audio Udal honen web atarian (www.laudio.eus)

Lehenengoa.- Onuradunak.

Deialdi honen bidez, subjektu indibidualek edo elkarteek sustatutako kultura-programak arautzen dira, baldin eta 2024an gure udalerrian kultura-jarduerak sustatzen badituzte.

Bigarrena.- Xedea.

Gure udalerrian 2024an kultura-egitasmoak bideratzeko diru-laguntzak ematea.

Hirugarrena.- Oinarri arautzailea.

Laudio Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko urriaren 4an hartutako erabakiaren bidez onartu zen. ALHAOn argitaratuko da.

Laugarrena.- Zenbatekoa.

Deialdi honetarako zuzkidura 46.000,00 eurokoa izango da, 2024 urteko aurrekontuan eta 0401 3341 48110 partidaren kargutan.

Bosgarrena.- Eskaerak aurkezteko epea.

ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita eta hogeiei egun baliodun pasatu arte.

Laudio, 2024ko urriaren 7a
Alkate-udalburua, AINIZE GASTAKA MARTINEZ